

Ihesi

GORKA AZKARATE

Argazkiak: Gotzon Aranburu

Euskal Herria ezagutuz:
Urretxu (Gipuzkoa)



Horma zaharrak mendeen gordailu

Herria inguratzen duten mendien eta paisaien edertasunagatik da agian ezaguna Urretxu, baina badauka historiaz beteriko herrigune dotorea ere, hainbat altxor biltzen dituena. Mendeen joanak zenbait eraikin antzaldatu dituen arren, erdiguneko kaleetan barrena osteratxoa egiteak antzinako garaietara eramango gaitu.



Faktorekoa, Urretxuko Iparragirre kaleko eraikinik esanguratsuenetakoa.

1383KO 'KARTA PUEBLA' delakoa da Urretxuren aurreneko erreferentzia dokumentatua. Horren aurretik, Santa Barbara basilizaren inguruan barreiatutako baserriek auzo bat osatzen zuten, elizate moduko bat. Herria sortzeak nolabaiteko babes eta egonkortasuna eman zien, baita zenbait eskubide ere, merkataritza areagotzeaz gain. Erregeak sortu zuen Urretxu, eta hortik datorkio Villa Real, garai bateko izena.

Herritarrek eurek diseinatu zuten Urretxu erregeak emandako lur eremuaren mugen barruan; laukizuzen formakoa zen erdigunea, bi kale nagusik zeharkatua: Goikokale eta

Barrenkale, egungo Iparragirre. Mugetatik kanpo, Errebala, Areizaga eta Nekolalde kaleak (aldiriak), eta Santa Barbara auzunea, izen bereko basiliza buru, herrigunetik bi kilometrora. Gaur egun Erdi Aroko egitura hori argi ikus daiteke Urretxun.

Jauregi dotoreak

Herrigunean ibilian goazela eraikin esanguratsu ugariarekin egingo dugu topo; Goikokalean, esaterako, etxe askok Erdi Aroko orubeari eusten diote, eraikuntza aztarnarik zaharrena XVII. mendekoak diren arren. Gaur egun Kultur Etxea den Aizpurunea etxeak, orain dela hiru bat

hamarkada eraberritua izan zenak, garai bateko itxura gordetzen du. Urrelur, Urretxuko mineralen eta fosilen museo ezagunaren egoitza ere bada Aizpurunea gaur egun.

Iparragirre kalean Faktorekoa, Bikariokoa, Galdosenea eta Barrenetxea dira eraikin esanguratsuetako batzuk. Ezin aipatu gabe utzi Corral-Ipeñarrieta jauregia, egungo udal-etxea. Eraikin ikusgarria da, aurrealdeko horma kareharri arrosaz egina daukana, eta barruko aretoetan hainbat margolan biltzen dituena, Urretxuko kale zenbaiti izena eman dioten pertsona historikoen erretratuak gehienak, Iparragirre handia tartean.

Eraikin aipagarriak dira, baita ere, ezinbesteko bisita merezi duten Areizaga Jauregi etxea eta Santa Barbara basilikatik gertu dagoen Ipeñarieta jauregia, Urretxuko esanguratsuen askoren iritziz. Tourseko San Martin elizaz gain, noski.

Bost mende, hainbat itxura

Tourseko San Martin eliza XV. mendearen bukaeran eraiki zuten. Hiru habearte dauka, eta hasiera batean Zumarragako Antiguako Ama Birjinaren ermita laudatuaren itxura bera omen zuten. Mendeen joanean jasan dituen hainbat birmoldaketek egungo itxura eman diote.

Kokapenak handitasuna ematen dio: bi kale nagusien artean dago, eta eremu handia betetzen du. Herriguneko murrueetatik gertu egoteak Erdi Aroko gaztelu baten itxura emango zion garai batean, dorrea urrunetik izango baitzen ikusgai. Udaletxerik egon ez zen bitartean, herriko agiriak eta zigilua, armak eta bestelako ondareak bertan gorde ziren, elizan. Herriko bilerak eta beste hainbat ospakizun ere han egin ohi zituzten.

Eliza barneko habeak harrizkoak dira, baina ez guztiak: erdiko partekoak egurrezkoak dira. Muga horretan hain juxtu, hasierako garaietan eliza barrenetik aldamen partera zuzentzen zen U formako koruak hartzen zuten atsedean. Korua kendu egin zen, baina. Bere horretan mantendu izan balitz, Zumarragako Antioko basilizaren oso antzekoa zatekeen tenplu baten aurrean geundeko. Elizako ateeak, nagusiak zein atzekoek, ez daukate apaingarri berezi askorik, eta ziur aski soiltasun horrek ematen die edertasuna. Sabaiaren egitura



Tourseko San Martin eliza, XV. mendearen bukaeran eraikia.

osoa egurrezkoa da, eta Antiokoarekin badu antzekotasunik, edo bazuen behintzat hasiera batean, ondoren eraldaketak jasan baititu. Bi isurialde ditu egurrezko sabaiak, eta makina bat oholez osaturiko egitura konplexua, itsasontzi baten kaskoa bailitzan. Alderantziz jarria, noski.

Zumarragak zer, Urretxuk hura

XVI. mendearen bigarren erdian eliza birmoldatu zuten, Juan de Lizarazu herriko maisuaren eskutik. Ordura arte, Urretxuko eliza inguruko beste herrietako elizen oso antzekoa zen (Zumarragako Antio, Ezkio, Itsaso, Astigarreta eta agian Legazpi ere bai). Eredua berdintsua izanik, ez zegoen gutxiespenik beraien artean.

Garai horretan, ordea, Zumarragak beste eliza bat eraikitzeko

asmoa azaldu zuten, herrigunean, garai berrietara egokiturik noski, eta Urretxuk, hori ikusirik, eraldatu egin zuten berea, Juan de Lizarazu buru zelarik. Baliabideak, ordea, urriak ziren, eta hala-moduzkoa izan zen eraldaketa. Asko eskatu zioten Lizarazuri, eta trukean ezer askorik eskaini ez. Nahi zuena egiteko askatasuna izango zen, agian, enkargua onartzeko arrazoietako bat. Herriko semea izateak ere izango zuten zerikusirik. Aspaldiko kontuak. ■



Bisitatu Ihesi.com, aisialdirako webgune partehartzailea.



Urretxuko udala

www.urretxu.eu

Tourseko San Martin Eliza Urretxun Zatoz gune historikotik ibilbidea egitera

